



# **GERNIKA-LUMOKO UDALERA ADMINISTRAZIOKO ERABILERA PLANA**

**2013-2017**

## **UDAL BARNEKO EUSKARAREN ERABILERA PLANA**

## AURKIBIDEA

<b>1. EUSKARA PLANAK DISEINATZEKO .....</b>	<b>4</b>
<b>1.1. Planaren testuingurua .....</b>	<b>4</b>
<b>1.2. Helburuak .....</b>	<b>4</b>
<b>1.3. Parte hartzaileak .....</b>	<b>5</b>
<b>1.4. Tresna eta baliabideak .....</b>	<b>5</b>
<b>1.5. Gernika-Lumoko Udala .....</b>	<b>5-14</b>
1.5.1. Udal langileen sailkapena	
1.5.2. Hizkuntzen erabilerarako jarraibideak	
<b>2. UDALAREN EGOERA, HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK ....</b>	<b>15</b>
<b>2.1. Udaleko lan-jardunen egoera, helburuak eta normalizazio ekintzak ...</b>	<b>14-20</b>
2.1.1. Lan-jardunen egoera	
2.1.2. Lehentasunak eta helburuak	
<b>2.2.-Alorkako egoeraren araberako helburuak eta proposamenak .....</b>	<b>21-32</b>
2.2.1. Langileen hizkuntza-gaitasuna	
2.2.2. Kanpo-harremanak	
2.2.3. Barne-harremanak	
2.2.4. Alderdi politikoei begirako lanketa	
2.2.5. Herritarren eragina Euskara Planean	
2.2.6. Hizkuntza-paisaia	
2.2.7. Baliabide informatikoak	
<b>2.3.-Jarduera-esparru desberdinetarako hizkuntza irizpideak .....</b>	<b>32-35</b>
2.3.1. Hizkuntza prestakuntza eta etengabeko prestakuntza	
2.3.2. Kontratazioak	
2.3.3. Diru-laguntzak	
2.3.4. Administrazioaren irudia eta argitalpenak	
2.3.5. Ekitaldi publikoak	
<b>3. NORMALIZAZIO EKINTZAK ETA AZPIEGITURA .....</b>	<b>36-43</b>
<b>3.1.-Normalizazio-ekintzak eta baliabideak .....</b>	<b>36-43</b>
<b>3.2.-Azpiegitura .....</b>	<b>36-43</b>
<b>3.3.-Kronograma.....</b>	<b>43</b>

# ERANSKINAK

## Udaleko langileria

**I. Eranskina: Indarrean dagoen Plantila organikoa**

## Datu Bilketa

**II. Eranskina: Lan jardunen datu-bilketa**

**III. Eranskina: Lan jardunen egoera, urratsak barne. Kanpo-eta barne-harremanen emaitzak**

## Gehigarriak

**IV. Eranskina: Eusko Jaurlaritzak 2006an kontratazio-pleguetarako ebatzitako hizkuntza irizpideak Udalak onar ditzan.**

**V. Eranskina: Idazkariaren zirkularra (2009 urtea)**

**VI. Eranskina: Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrerako Euskara Sailaren ekarpena.**

**VII. Eranskina: 2014an ekiteko Plana.**

# 1. EUSKARA PLANAK DISEINATZEKO

## 1.1. Planaren testuingurua

Ezaguna denez, euskal herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntza prozesua plangintzaldia kudeatzen da, eta plangintzaldi bakoitzak bost urte irauten du. Lehen plangintzaldia 1990an jarri zen martxan, eta orain arte, lau izan dira: lehenengo bietan, Administrazioeko langileak **euskalduntzeari eta alfabetatzeari** eman zitzaion lehentasuna, alegia, euskararen ezagutza sendotzeari; hirugarrenean (2003-2007) eta laugarrenean (2008-2012), berriz, Administrazioan **euskara erabiltzeari** eman nahi izan zaio garrantzirik handiena. Eta ezagutzak garrantzia izaten jarraituko badu ere, **erabilera** izango da erronka nagusia.

Plangintza hauek guztiek ondorio gazi-gozaok eman dizkigute gure herrian. Zehaztutako helburu guztiak ez dira bete eta hausnarketa bat eskatzen du honek. Pausu garrantzitsuak eman ditugun arren (udal langile askok bere euskara maila hobetu du), ez dugu euskaraz aritzea lortu (ezagutza izan arren, sorkuntza eta erabilera ez da euskaraz nahi bezala egiten). Helburu nagusia euskararen erabilera izango da, eta horretarako estrategia aldatu behar dugu, lehentasunak birplanteatu eta metodoak aldatu.

Horiek horrela, euskara lanerako **hizkuntza** normala bilakatu nahi dugu, herritarren hizkuntza eskubideak bermatuz eta langileen arteko harremanak euskaraz izan daitezen sustatuz, bakoitzak duen HE bigarren maila batean utzita.

Horretarako, Gernika-Lumoko Udalak, bere eskumeneko eremurako emandako jarraibide eta ordenantzak betez, berari dagokion euskararen erabilera normalizatzekeo plana aurkezten du, 2013-2017 urteetarako, orain arte indarrean zegoen 2007-2012 eperako planari amaiera emanez. Lagungarri, hainbat lege, arau eta dekretu ditugu Euskal Autonomia Erkidegoan<sup>1</sup> gure jarduna osatzeko.

## 1.2. Helburuak

Udal erakunde guztietan **euskararen erabilera indartzea eta areagotzea** da euskara-planaren helburu nagusia.

Plangintzaldi honetan markatutako xede nagusi hori lortzeko honako oinarri hauek landuko ditugu:

1. **Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar ditu Administrazioak.**
2. **Beste administrazioekiko harremanak euskaraz izango ditu gure administrazioak.**
3. **Gure administrazioak, euskara, zerbitzu hizkuntza moduan erabiliko du, eta langileek euren eginkizunetan lan hizkuntza moduan erabiliko dute euskara.**
4. **Aipatutako langileek funtzio komunikatiboak euskaraz egingo dituzte.**

---

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak, azaroaren 24ko 10/1982 zenbakiduna. Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. Titulua 86/1997 Dekretua

### 1.3. Parte-hartzaileak

- Lanpostuaren jabe izan edo ez izan, derrigortasun data ezarrita izan ala ez izan, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenak eta ez dutenak, udaleko langile guzti-guztiak izango dira plan honen partaide.
- Ezarritako lehentasunen arabera, langile batzuk plangintzaldi osoan izango dira subjektu, beste batzuk, ordea, aldi batean izango dute protagonismoa.

### 1.4. Tresna eta baliabideak

"Administrazioetan Euskara Bermatzeko Egitasmoen Metodologia (AEBEMET)" tresna metodologikoan oinarri hartuta, parametro berdinetan oinarrituta dagoen aplikazio informatikoa sortu genuen Gernika-Lumoko Udalean. Euskara plan berriaren jarraipena egiteko beharrezko moldaketak egin beharko dizkiogu.

### 1.5. Gernika-Lumoko Udala

#### 1.5.1. Udal langileen sailkapena

Udal langileak izanik plan honen subjektua eta helburu orokorra den euskararen erabileraren bermatzaileak, bi taldetan sailkatu ditugu:

- **LEHEN TALDEA:** euren zereginen artean, jendaurreko lana egiten duten langileak. Jendaurreko diogunean, honela ulertu behar da: herritarrekin harreman zuzena izatea, berdin da, lan administratiboei adituta izan, edo udaletxean bertan zein kalean herritarrekin tratua izan.
- **BIGARREN TALDEA:** Administrazio lanak soilik egiten dituzten langileak, baina euren lanpostuen ezaugarriengatik, herritarrekin harremana izan dezaketenak.
- **HIRUGARREN TALDEA:** Herritarrekin harremanik ez duten langileak.

Gure Udalean, indarrean dagoen araudiari jarraituz, langileei dagozkien Hizkuntza Eskakizunen betetze indizea gainditzen dugu, beraz, zentzu administratiboan ez dugu arazorik. Bai ordea, gaitasun teoriko hori praktikan jartzerako unean. 86/97 dekretuak 17-d artikuluan dioenari helduz (“*Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz...*”), plan honetako 1.2 puntuan azaldutako lehen helburua lortzeko (*Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar ditu Administrazioak*) Gernika-Lumoko Udaleko langileak identifikatu dira **indarrean dagoen Plantila Organikoaren arabera (I. eranskina):**

SAILA	KODEA	LANPOSTUA	HARREMAN ZUZENA	LANPOSTUA HERRITARREN AURREAN	LANGILEA	DERRIGORTASUN DATA	DAGOKION HE	LORTU DUEN MAILA
IDAZKARITZA	1	idazkaria	bai	ez	Jon Goikoetxea	1994/12/31	4	4HE
	2	admin. laguntzailea	bai	bai	Begoña Carrero	1994/12/31	2	1HE
	3	administraria	bai	bai	Eneritz Arrien	2004/12/22	3	4HE
IDAZKARITZA - beste lan batzuk	4	informatikaria	ez	ez	Javier Lauzirika	1994/12/31	3	3HE
	5	informatikari lagun.	ez	ez	Jorge Alfageme	erabakitzeke	.....	3HE
	6	admin. laguntzailea	ez	ez	Inmaculada Guenetxea	1994/12/31	2	-
	7	admin. laguntzailea	bai	bai	Arantza Sarduy	1994/12/31	2	2HE
	8	alkatearen idazkaria	bai	bai	Maria Nabea	2004/12/22	2	3HE
ERREGISTROA - ESTATISTIKA	9	administraria	bai	ez	Conchi Asteinza	1994/12/31	2	3HE
	10	admin. laguntzailea	bai	bai	Belen Ugalde	1994/12/31	2	2HE
	11	admin. laguntzailea	bai	ez	Jesus Antonio Gorriño	1994/12/31	2	2HE
KONTU- HARTZAILITZA	12	kontuhartzailea	ez	ez	Araitz Elexgaray	1994/12/31	4	4HE
	13	diruzaina	ez	ez	Itziar Moreno	1994/12/31	4	4HE
	14	admin. laguntzailea	bai	bai	Hutsik	1994/12/31	2	
	15	admin. laguntzailea	bai	bai	MCarmen Malaxetxebarria	1994/12/31	2	2HE
	16	admin. laguntzailea	bai	bai	Beñat Amutio	1994/12/31	2	3HE
	17	admin. laguntzailea	bai	bai	Iraide Aparicio	1994/12/31	2	3HE

SAILA	KODEA	LANPOSTUA	HARREMAN ZUZENA	LANPOSTUA HERRITARREN AURREAN	LANGILEA	DERRIGORTASUN DATA	DAGOKION HE	LORTU DUEN MAILA
GIZARTE ETA TOKI GARAPENA	18	gizarte laguntzailea	bai		Maite Gorostiaga	1994/12/31	3	103
	19	admin. laguntzailea	bai	Bai	Maria Nieves Etxeandia	1994/12/31	2	2HE
	20	Merkataritza teknikaria	bai		Borja Escalona	erabakitzeke	....	3HE
EUSKARA - KULTURA - HEZKUNTZA	21	HNT	bai	bai	Bittor Zarrabeitia	----	TGA	4HE
	22	HNT2	ez	bai	Tamara Arza	erabakitzeke	...	4HE
	23	Itzultzailea	ez	ez	hutsik	erabakitzeke	---	
	24	Trebatz. itzultzailea	ez	bai	Karlos Gorrindo	erabakitzeke	...	4HE
	25	admin. Itzultzailea	ez	bai	Oihana Pagay	erabakitzeke	...	3HE
	26	Dinamizatzailea	bai	bai	Estiñe Astorkia	erabakitzeke	...	4HE
TURISMOA	27	Turismo teknikaria	ez	Ez	Amaia García	1994/12/31	3	3HE
	28	Turismo informatz.	bai	Bai	Begoña Arrieta	2004/12/22	3	3HE
	29	Turismo informatz.	bai	Bai	Mirari Urrutibeaskoa	2008/02/06	3	3HE
	30	Turismo informatz.	bai	bai	Itxaso Mendieta	2004/12/22	3	3HE
BULEGO TEKNIKOA	31	arkitektoa	bai	ez	hutsik	1994/12/31	---	---
	32	aparejadorea	bai	bai	Aritz Ojinaga	1994/12/31	3	3HE
	33	aparejadorea	bai	bai	Juan Carlos Intxausti	1994/12/31	3	3HE
	34	delineatzailea	bai	ez	Juan Antonio Fernández	1994/12/31	2	2HE
	35	delineatzailea	bai	bai	Jon Joseba Asteinsa	1994/12/31	2	2HE

SAILA	KODEA	LANPOSTUA	HARREMAN ZUZENA	LANPOSTUA HERRITARREN AURREAN	LANGILEA	DERRIGORTASUN DATA	DAGOKION HE	LORTU DUEN MAILA
<b>HIRIGINTZA - OBRAK - ZERBITZUAK</b>	36	EM. Teknikaria	bai	ez	M <sup>a</sup> Asuncion Barayazarra	1997/12/31	3	3HE
	37	admin. laguntzailea	bai	bai	Fernando Gastelua	1994/12/31	2	2HE
	38	admin. laguntzailea	bai	bai	Almudena Cires	1994/12/31	2	3HE
	39	admin. laguntzailea	bai	bai	Beatriz Quintanilla	2003/02/28	2	3HE
	40	Ingurumen tekn. EM	bai	ez	Rafa Ensunza	1994/12/31	4	3HE

<b>LAN TALDEA</b>	41	Lan Taldeko Arduraduna	bai	bai	<b>Hutsik</b>	1994/12/31	2	2HE
	42	zer. anitzetako ofiz.	bia	bai	Jose M. Aldamiz-Etxebarria	2004/02/18	2	2HE
	43	zer. anitzetako ofiz.	bai	bai	Kepa Urionabarrenetxea	2004/02/18	2	2HE
	44	zer. anitzetako ofiz.	bai	bai	Javier Gerrikabeitia	2004/02/18	2	3HE
	45	zer. anitzetako ofiz.	bai	bai	Alberto Izagirre	2004/02/18	2	2HE
	46	zer. anitzetako ofiz.	bai	bai	Alejo Jimenez	2004/02/18	2	1HE
	47	zer. anitzetako ofiz.	bai	bai	Javier Ortuondo	2004/02/18	2	2HE
	48	zer. anitzetako ofiz.	bai	bai	Josu Gabikaetxebarria	2004/02/18	2	2HE
	49	zer. anitzetako ofiz.	bai	bai	Asier Arejita	2004/02/18	2	3HE
	50	zer. anitzetako ofiz.	bai	bai	Gotzon Azurmendi	----	----	1HE
	51	lurperatzailea	bai	bai	Jose Ign. Malaxetxebarria	2002/12/31	1	1HE



SAILA	KODEA	LANPOSTUA	HARREMAN ZUZENA	LANPOSTUA HERRITARREN AURREAN	LANGILEA	DERRIGORTASUN DATA	DAGOKION HE	LORTU DUEN MAILA
UDALTZAINGOA	52	udaltzaingo burua	bai	bai	Jose Antonio Enbeita	1994/12/31	3	2HE
	53	udaltzaina	bai	Bai	Gorka Izagirre	1994/12/31	2	2HE
	54	udaltzaina	bai	bai	Jose Daniel Ajuriagogeaskoa	1994/12/31	2	2HE
	55	udaltzaina	bai	bai	Mario García	1994/12/31	2	2HE
	56	udaltzaina	bai	bai	Oier Gabikagogeaskoa	1994/12/31	2	2HE
	57	udaltzaina	bai	bai	Rafael Carrero	1994/12/31	2	0
	58	udaltzaina	bai	bai	Josu Martínez	2003/02/28	2	3HE
	59	udaltzaina	bai	bai	Aritz Arruti	1994/12/31	2	3HE
	60	udaltzaina	bai	bai	<b>Hutsik (Ander Apaolaza)</b>	1994/12/31	2	2HE
	61	udaltzaina	bai	bai	Borja Juarez	1994/12/31	2	2HE
	62	udaltzaina	bai	bai	Juan C. Morgaetxebarria	1994/12/31	2	1HE
	63	udaltzaina	bai	bai	Asier Bilbao	1996/05/01	2	3HE
	64	udaltzaina	bai	bai	Javier Martín	2001/06/28	2	2HE
	65	udaltzaina	bai	bai	Roberto Flores	2001/06/28	2	2HE
	66	udaltzaina	bai	bai	Héctor Olabarriaga	2001/06/28	2	2HE
	67	udaltzaina	bai	bai	Jose Marcos Alonso	2003/02/03	2	0
	68	udaltzaina	bai	bai	Gorka Iturregi	2003/02/03	2	2HE
	69	udaltzaina	bai	bai	Roberto Lobo	2003/02/03	2	2HE
	70	udaltzaina	bai	Bai	<b>Hutsik (Eneko Campo)</b>	1994/12/31	2	2HE
	71	udaltzaina	bai	bai	Markel Aierdi	2006/12/27	2	3HE
72	udaltzaina	bai	bai	Jon Elorriaga	2006/12/27	2	2HE	
73	udaltzaina	bai	bai	Jon Ander Santamaría	2006/12/27	2	3HE	
74	admin. laguntzailea	bai	bai	Jose Félix Parada	2004/12/22	2	3HE	

SAILA	KODEA	LANPOSTUA	HARREMAN ZUZENA	LANPOSTUA HERRITARREN AURREAN	LANGILEA	DERRIGORTASUN DATA	DAGOKION HE	LORTU DUEN MAILA
BESTELAKOAK	75	ordenantza	bai	bai	Iñaki Olano	1994/04/30	1	3HE
	76	ordenantza	bai	bai	Iñaki Perez	erabakitzeke	---	
	77	garbitzailea	ez	ez	Lourdes Uriarte	----	---	2HE
	78	Garbitzailea	ez	ez	Hutsik	Erabakitzeke	---	
	79	garbitzailea	ez	ez	Hutsik	Erabakitzeke	---	
LANBIDE EKIMENAK	80	Zuzendaria	bai	ez	Amagoia Beika	1994/12/31	3	2HE
	81	Administraria	bai	ez	Gaizka Enbeita	2004/12/22	3	3HE
	82	Enpresa teknikaria	bai	ez	Joseba Irazabal	erabakitzeke	---	4HE
	83	Orientatzaile tekn.	bai	ez	Eneritz Armaolea	erabakitzeke		2HE
	84	Prestakuntza tekn.	bai	ez	Josu Imanol Unanue	erabakitzeke		2HE
	85	Irakaslea	bai	bai	(hutsik) Ibon Bedialauneta	2004/12/22	2	
	86	Irakaslea	bai	bai	Begoña Martiartu	erabakitzeke		2HE
	87	Irakaslea	bai	bai	Roberto Chamorro	1994/12/31	3	2HE
KIROL PATRONATUA	88	Zuzendaria	bai	ez	Aitor Ansotegi	1994/04/23	3	3HE
	89	Administraia	bai	ez	Hutsik	2006/12/27		
	90	admin. laguntzailea	bai	ez	Elena Uribarri	2001/09/26	2	3HE
	91	kirol monitorea	bai	bai	Eduardo Lekunberri	2002/03/20	2	2HE
	92	mantenimendua	bai	bai	Euken Garalde	1994/12/31	1	2HE
	93	Ordenantza	bai	bai	Iñaki Barrena	Erabakitzeke	----	1HE
	94	kontrol-harrera	bai	bai	Goiztidi Lamikiz	2001/09/26	2	3HE
	95	kontrol-harrera	bai	bai	Garaitza Zubizarreta	1994/12/31		3HE
	96	monitore-sorosle	bai	bai	Jesus Pereita	1994/12/31	2	1HE
	97	monitore-sorosle	bai	bai	Belen Del Arbol	2004/12/22	2	2HE
	98	monitore-sorosle	bai	bai	Arantza Lartitegi	2001/09/26	2	2HE
	99	monitore-sorosle	bai	bai	Ekintza Montero	Erabakitzeke	----	2HE

SAILA	KODEA	LANPOSTUA	HARREMAN ZUZENA	LANPOSTUA HERRITARREN AURREAN	LANGILEA	DERRIGORTASUN DATA	DAGOKION HE	LORTU DUEN MAILA
-------	-------	-----------	-----------------	-------------------------------	----------	--------------------	-------------	------------------

KULTUR ETXEA	100	Zuzendaria	Bai	Ez	Rikardo Abaunza	1994/12/31	3	2HE
	101	Admin. laguntzailea	Bai	Bai	Liher Intxausti	2006/02/15	2	3HE
	102	Atezaina	Bai	Bai	Fernando Malaxetxebarria	1994/12/31	1	1HE
	103	Atezaina	Bai	bai	Maria Victoria Jaio	erabakitzeke	---	1HE
	104	Atezaina	Bai	Bai	M <sup>a</sup> Eli San Jose	1994/12/31	1	1HE
	105	Gazte informatzailea	Bai	Bai	Miren Gurende Amillategi	1994/12/31	3	3HE
	106	Liburutegiko tek. Ardur.	Bai	Bai	hutsik	2008/02/08	4	---
	107	Liburuzain lagunt.	Bai	Bai	Andrea Aiape	erabakitzeke	---	3HE
	108	Admin. laguntzailea	Bai	Bai	Imanol Malaxetxebarria	1994/04/23	2	3HE
	109	Admin. laguntzailea	Bai	Bai	Naiara Ruiz (lanaldi murriztua)	erabakitzeke	---	3HE
	110	Irakaslea	Bai	Bai	Ana Abio	2008/02/06	3	3HE
	111	Irakaslea	Bai	Bai	Itxaso Arana	1999/12/31	3	3HE
	112	Irakaslea	Bai	Bai	Haimar Arejita	2006/02/08	3	3HE
	113	Irakaslea	Bai	Bai	Mirari Arrien	2002/12/31	3	2HE
	114	Irakaslea	Bai	Bai	Maite Beaskoetxea	2002/12/31	3	3HE
	115	Irakaslea	Bai	Bai	Eunate Berastegi	1999/12/31	3	3HE
	116	Irakaslea	Bai	Bai	Jon Carrillo	2002/12/31	3	3HE
	117	Irakaslea	Bai	Bai	Gorka Escauriaza	erabakitzeke	---	2HE
	118	Irakaslea	Bai	Bai	Arantza Etxabe	erabakitzeke	---	3HE
	119	Irakaslea	Bai	Bai	Patxi Gondra	erabakitzeke	---	3HE
	120	Irakaslea	Bai	Bai	Gorka Etxebarria	2002/12/31	3	2HE
	121	Irakaslea	Bai	Bai	Alfonso Rodriguez	2002/12/31	3	3HE
	122	Irakaslea	Bai	Bai	Ainhoa Sukia	erabakitzeke	---	3HE
	123	Irakaslea	Bai	Bai	Artur sustatxa	erabakitzeke	---	3HE
	124	Irakaslea	Bai	Bai	Patxi Goikoetxea	erabakitzeke	---	1HE
125	Irakaslea	Bai	Bai	Fatima Iturriarte	2002/12/31	3	3HE	

	126	Irakaslea	Bai	Bai	Maiteder Olano	2002/12/31	3	3HE
	127	Irakaslea	Bai	Bai	M <sup>a</sup> Jose Ribate	2002/12/31	3	3HE

6

EUSKALTEGIA	128	Irakaslea	bai	bai	Jaione Iturbe	-----	TGA	4HE
	129	Irakaslea	bai	bai	Josu Erkiaga	-----	TGA	4HE
	130	Irakaslea	bai	bai	Maria Jesus Zubillaga	-----	TGA	4HE
	131	Irakaslea	bai	bai	Asier Agirre (Esteban)	-----	TGA	4HE
	132	Irakaslea	bai	bai	Francisco Javier Balentziaga	-----	TGA	4HE
	133	admin. Laguntzailea	bai	bai	Yoana Urrutia	1994/04/23	3	4HE

### Oharrak:

- .- “*Harreman zuzena*” zutabeen “**BAI**” dutenak **LEHENENGO TALDEKO** langileak dira
- .- “*Harreman zuzena*” zutabeen “**EZ**” edukita, “**lanpostua herritarren aurrean**” zutabeen “**BAI**” dutenak **BIGARREN TALDEKOAK** dira.
- .- Gainerakoak (lanpostua herritarrekin nola erlazionatezn den adierazten duten zutabeetan **EZ / EZ** ) **HIRUGARREN TALDEKOAK** dira.
- **Gorritz nabarmenduta daudenak** bi motatakoak dira: batzuk “*erabakitzeke*” jartzen dute, Plantila organikoa onartuta bai baina lanpostu zerrenda berrian ez zaielako oraindik HE eta derrigorrezko data jarri; beste batzuk, “*hutsik*” jartzen dute, bakante daudelako eta interinorik ez dagoelako.

## 1.5.2. Hizkuntzak erabiltzeko jarraibideak: langile guztiarentzako jarraibideak

### ● **Zerbitzu-hizkuntza**

Euskarak, gaztelaniak bezala, herritarrei zerbitzua emateko hizkuntza izan behar du, atal-mota guztietan. Administrazioak herritarrekin dituen harreman-mota guztietan bermatu beharko du euskararen erabilera, ahozko eta aurrez aurreko harremanetan, telefono bidezkoetan, bozgorailua erabiltzen denetan, idatzizkoetan eta bai tresna elektronikoen, informatikoen zein telematikoen bidez gertatzen direnetan ere (internet, fax, posta elektronikoa eta abarretan).

#### Ahozko harremanetan:

a) Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzugailu automatikoz, bozgorailuz e.a., emandakoak), euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, esandako hurrenkera horretan.

b) Euskara dakien langilea euskaraz zuzenduko zaio herritarri, eta gero administratuak hautatutako hizkuntza ofizialean jarraituko du.

#### Idatzizko harremanetan:

c) Herritarrei zuzendu beharreko dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz egongo da, herritarrek beren-beregi euskararen edo gaztelaniaren aldeko aukera egiten ez badu.

d) Herritarra Administrazio honetara zuzentzerakoan euskara erabiltzen badu, euskaraz erantzungo zaio. Gaztelania erabiliz gero, elebitan erantzungo zaio.

e) Zuzendu beharreko herritar multzoa, euskalduna izatea derrigortzen duten mezuak euskara hutsez burutuko dira.

#### Komunikazio administratiboak, administrazioen arteko harremanak:

f) Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, elebitan egon behar dira Euskadiko Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetako herri-aginteek emandako arau-xedapen zein ebazpen ofizialak, zabalkunde ofiziala egitea dagokienean.

g) Komunikazio administratiboak euskaraz idatziko dira Euskal Autonomia Elkartearen esparruko herri administrazioetara, bi hizkuntza ofizialetatik euskararen aldeko hautua eginik.

h) Euskararen Legeak 8.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki, herri aginteek euskara bakarrik erabili ahal izango dute toki-administrazioaren esparruan baldin eta, udalerriaren ezaugarri soziolinguistikoak direla-eta, herritarren eskubideak kaltetzen ez badira.

- **Lan-hizkuntza**

Lan-hizkuntzaren inguruko jarraibide hauek, batez ere, memoria, azterketa, txosten eta zirriborroei buruzkoak dira, eta bai hizkuntza ofiziala aukeratzeko dauden legezko xedapenek ukitu gabeko bestelako gaiei buruzkoak ere.

Plan honetan komunikazio administratiboetarako emandako jarraibideari kalterik eragin gabe, administrazioko sailetako dokumentazioa hizkuntza bakarrean sortuko da, euskaraz edo gaztelaniaz.

Jarraibideak, berriz, honako hauek dira:

- ① Gaitasuna duten langileek dokumentazioa euskaraz sortuko dute.
  - i. Dokumentuaren hartzailea Udaleko langilea izanik, euskararako gaitasunik ez badu, euskara zerbitzuak itzuli egingo du.
  - ii. Dokumentuaren hartzailea herriz gaindiko EAEko beste administrazio bat bada, bere horretan helaraziko zaio.
- ② Gaitasuna ez duten langileek dokumentazioa gazteleraz sortuko dute, baina euskara zerbitzuek euskarazko itzulpena egingo dute hartzaileak jaso aurretik.

## 2.-UDALAREN EGOERA, HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK

Txostenaren bigarren zati honetan Gernika-Lumoko Udalaren hizkuntza egoeraren berri ematen da (datu-bilketaren emaitzak), batetik, eta 86/97 Dekretuari jarraituz, bete beharreko helburuak zein planteatu diren proposamenak jakinarazten dira, bestetik. Beste era batera esanda, Gernika-Lumoko Udalean euskara zenbateraino erabiltzen den gaur egun (zertarako, norekin eta nola) adierazten da eta erabilerari hori sustatzeko edo berorren eragiteko proposamenak egiten dira era mailakatuan.

### **Udaleko lan-jardun edo lan-eginkizunen egoera, helburuak eta proposamenak.**

Administrazioak burutzen dituen espediente edo ekintzak dira lan-jardunak, administrazioaren eguneroko funtzionamenduaren alderdi dinamikoak. Lan-jardunotan biltzen da udalaren eguneroko funtzionamenduaren muina. Horietako batzuk herritarrei zuzendutakoak dira, beste batzuk, aldiz, barne mailako ekimenei dagokie.

### **Udalaren funtzionamendurako estrategikoak diren alorren egoera, helburuak eta proposamenak:**

Alorkako azterketa diogunean edozein erakunderen hizkuntza-politikaren aldetik estrategikoak diren egoera-multzoak lantzea esan nahi da, hala nola: langileen hizkuntza-gaitasuna, barne-/kanpo-harremanak, hizkuntza-paisaia, baliabide informatikoak eta jarrerak/sentsibilizazioa.

### **Udalaren hizkuntza-politika finkatzen duten hizkuntza-irizpideen egoera, helburuak eta proposamenak.**

Hizkuntza-irizpideak erakundearen hizkuntza politikaren ardatz eta adierazpidea izango dira, hau da, erakundeak hizkuntzen egoera eta erabilerari begira ezartzen dituen irizpideak dira.

Jarduera-esparru desberdinetarako hizkuntza-irizpideak:

- Hizkuntza-prestakuntza eta etengabeko prestakuntza
- Zerbitzuen kontratazioak
- Diru-laguntzak
- Administrazioaren irudia eta argitalpenak
- Ekitaldi publikoak

Hizkuntza-irizpideak izango dira euskara-planen sostengu eta plana errotzeko zutabeak.

## 2.1. Udalaren egoera, lehenetsunak, helburuak eta normalizazio ekintzak

Sarreran aipatu dugun moduan, lan-jardunak administrazioak burutzen dituen espediente edo ekintzak dira, hots, administrazioaren eguneroko funtzionamenduaren alderdi dinamikoa. Lan-jardunok hobeto aztertzeko lan-urratsetan zatitzen dira, gerora, proposamenak ere zehatz egiteko moduan.

### 2.1.1. Lan-jardunen egoera

Gernika-Lumoko Udalean 2012an egindako datu bilketa egin eta atal guztiak aztertu ondoren 87 lan-jardun nagusi begiratu ditugu. Euskarazko eta elebietako lan-jardunak % 73,86 (65) izan dira eta euskara hutsean egiten direnak % 27,27 (24). Gainerakoak, % 26,13 (23), gaztelaniazkoak izan dira. Azpimarratu nahi dugu, bestalde, **elebietako emaitzak itzulpengintzari** esker ondorioztatzen direla; oro har, gaztelaniatik euskarara ematen dira itzulpenok.

Hurrengo koadroetan azken bi datu bilketa nagusien lan jardunen bilakaera azpimarratu dugu.

LAN-JARDUNAK			E	Bi	G
2012 urtea	Kp: →	87	24	41	23
	%: →	100,00	<b>27,27</b>	<b>46,59</b>	<b>26,13</b>
2008 urtea	Kp: →	148	28	34	86
	%: →	100,00	<b>18,93</b>	<b>22,97</b>	<b>58,11</b>

Lan-jardun horien baitan 725 lan-urrats aztertu ditugu, eta hau da, oro har, azaldu den hizkuntz egoera:

LAN-URRATSAK			E	Bi	G
2012 urtea	Kp: →	725	232	106	387
	%: →	100,00	<b>32</b>	<b>19,62</b>	<b>53,38</b>
2008 urtea	Kp: →	1053	224	38	791
	%: →	100,00	<b>21,27</b>	<b>3,66</b>	<b>75,12</b>

Aurrekoen artetik, hau da barne-harremanetako lan-urratsen egoera:

BARNE HARREMANAK			E	Bi	G
2012 urtea	Kp: →	355	142	47	166
	%: →	100,00	<b>40</b>	<b>13,23</b>	<b>46,76</b>
2008 urtea	Kp: →	472	139	20	313
	%: →	100,00	<b>29,45</b>	<b>4,24</b>	<b>66,31</b>

Ondorengo hau, berriz, kanpo-harremanetako lan-urratsena:

KANPO HARREMANAK			E	Bi	G
2012 urtea	Kp: →	370	89	60	221
	%: →	100,00	<b>24,05</b>	<b>16,21</b>	<b>59,73</b>
2008 Urtea	Kp: →	581	85	18	478
	%: →	100,00	<b>14,64</b>	<b>3,10</b>	<b>82,27</b>

**Gaztelaniatik euskarara itzulitako lan-urratsak, barne zein kanpo harremanetakoak: % 45,41.** Kontuan hartuta jakina, elebietako emaitzetan gaztelania dela sortze hizkuntza.



**Euskaratik gaztelaniara itzulitako lan-urratsak, barne zein kanpo harremanetakoak: %  
4,96**

### **2.1.2. Lehenetsunak eta helburuak**

Lan-jardunen egoera aztertu ondoren, lan-jardunak ezarritako helburuetara egokitzeko proposamenak planteatzen dira. Gernika-Lumoko Udalaren kasuan, sail guztietan ditugu langile elebidunak baina hala ere, lan-jardunetan oso egoera desberdinak aurkitu ditugu. Hori dela eta, ondoren datozen irizpideak erabili dira lan-jardunen artean lehenetsunak markatzeko.

- Harreman-mota: Herritarrei begirakoak izango dute lehenetsuna eta gero beste administrazioekikoak zein barne harremanak.
- Lanpostuaren kokapena: herritarrekin zuzeneko harremana izatea errazten duen kokalekuetan lan egiten duten langileen lan-jardunak lehenetsiko dira.
- Maiztasuna: Maiztasunik handiena duten lan-jardunak eta egoerak lehenetsiko dira.

Hiru irizpide horiek kontuan hartuta, lau urterako lehenetsunak eta helburuak ezarri dira, urtez urte V. Plangintzaldirako. Lau urterako helburuak hauexek dira, beraz:

- Lehen urterako (2014), lan-jardunak: Herritarrei begirakoak dira gehienak. Edo, barne mailakoak izanik, maiztasun handia duten jardunak dira. Erakunde Autonomoen lanjardunen/espeditenteen identifikazioa burutu (Kultur Etxea – Musika eskola ez -, Lanbide Ekimenak Zentroa, Kirol Patronatua).
- Bigarren urterako (2015), lan-jardunak: Lehenengo urteko lanari jarraituz, herritarrenganako harremanak eta maiztasun handiko jarduerak euskaraz izan daitezzen bermatuko dugu. Erakunde Autonomoetako lanjardunen artean lehenetsunak finkatu.
- Hirugarren urterako (2016), lan-jardunak: urte honetarako pisu handiagoa hartuko dute barrura begira egiten diren lan-eginkizunek. Erakunde Autonomoetako oinarrizko plana Plan Orokorrera egokitu (Lanbide Ekimenak).
- Laugarren urterako (2017), lan-jardunak eta aplikazio eta programa informatikoak: Azken urte honetarako utziko dira maiztasun txikieneko lan-jardunak edo herritarrekin harreman hain estua ez dutenak. Halaber, aplikazio eta programa informatikoak euskarazko bertsioak ezartzea izango dugu helburu. Erakunde Autonomoetako oinarrizko plana Plan Orokorrera egokitu (Kultur Etxea eta Kirol Erakundea).

Guztira **87** lan-jardun dira. **24** lan-jardun 2014 urterako; **25** lan-jardun 2015 urterako; hizkuntza paisaia eta **21** lan-jardun 2016rako; **17** lan-jardun eta aplikazio eta programa informatikoak 2017 urterako.

## Lau urteotarako lehenetasunak:

### 1. 2014an landu beharreko lan jardun kopurua:

Saila	Lan-jardun-kopurua	Lan-jardunak guztira
erregistroa-estatistika	3	24
euskara, kultura eta hezkuntza	5	
gizarte eta toki garapena	3	
hirigintza eta obrak	5	
kontuhartzaitza	1	
Udaltzaingoa	5	
Zerbitzuak	2	

### 2. 2015ean landu beharreko lan-jardun kopurua:

Saila	Lan-jardun-kopurua	Lan-jardunak guztira
euskara, kultura eta hezkuntza	3	25
gizarte eta toki garapena	2	
hirigintza eta obrak	7	
idazkaritza	7	
kontuhartzaitza	3	
udaltzaingoa	3	
euskara, kultura eta hezkuntza	3	

### 3. 2016an landu beharreko lan-jardunak:

Saila	Lan-jardun-kopurua	Lan-jardunak guztira
hirigintza eta obrak	10	21
idazkaritza	6	
kontuhartzaitza	3	
udaltzaingoa	2	

### 4. 2017an landu beharreko lan-jardunak eta aplikazio eta programa informatikoak

Saila	Lan-jardun-kopurua	Lan-jardunak guztira
hirigintza eta obrak	4	17
idazkaritza	5	
kontuhartzaitza	4	
udaltzaingoa	4	

## 1. 2014. urterako lan jardunak

lan jarduna	saila
16 - udal nitxoan alokairua	Erregistroa-Estatistika
232 - errolda berriztatzea	Erregistroa-Estatistika
138 - dokumentu sarrera eta irteera. erregistro orokorra	Erregistroa-Estatistika
81 - elkarteei eta herritarrei diru-laguntzak ematea	Euskara, Kultura eta Hezkuntza
82 - herritarren proposamenak jaso eta irtenbideak ematea	Euskara, Kultura eta Hezkuntza
135 - jai batzordeko bilerak, deiak eta aktak	Euskara, Kultura eta Hezkuntza
85 - diru laguntza herritarrei euskera ikasteko	euskara, kultura eta hezkuntza
86 - kalean ekitaldi publikoak egiteko baimena	euskara, kultura eta hezkuntza
97 - elkarteentzako diru laguntzak tramitatu	Gizarte eta Toki Garapena
102 - arriskutsuak izan daitezkeen txakurrei altak eta bajak ematea	Gizarte eta Toki Garapena
103 - diru laguntzetarako programen aurkezpen idatziak	gizarte eta toki garapena
1 - terrazetan mahaiak-eta jartzeko baimena	Hirigintza eta obrak
11 - obra eta jarduera baimenak	Hirigintza eta obrak
24 - kontainera jartzeko baimena	Hirigintza eta obrak
33 - obrak ikuskatu eta lehen okupaziorako lizentzia	Hirigintza eta obrak
12 - finka bat ixteko baimena	hirigintza eta obrak
190 - dirubilekta exekutiborako kobraketak	kontuhartzaitza
205 - isunen eta tasen kitapena	Udaltzaingoa
208 - salaketak tramitatu	Udaltzaingoa
209 - istripuen parte ematea	Udaltzaingoa
210 - trafikoko salaketak tramitatu	udaltzaingoa
212 - jendaurrerako iragarkiak eta oharrak egin	udaltzaingoa
135 - jai batzordeko bilerak, deiak eta aktak	zerbitzuak
228 - txosnak jartzeko adjudikazio prozedura	zerbitzuak

**Oharra: Zenbakiak, lan-jardunek aplikazio informatikoan dauzkaten zenbakiak dira.**

## 2. 2015. urterako lan jardunak

lan jarduna	saila
83 - zerbitzuak kontratatu	euskara, kultura eta hezkuntza
87 - publizitate lanak	euskara, kultura eta hezkuntza
229 - erakundeekin hitzarmenak sinatzea	euskara, kultura eta hezkuntza
90 - gizarte eta toki garapenerako batzordearen bilerak zuzendu	gizarte eta toki garapena
238 - ibilgailua aparkalekuan uzteko ezinduentzako txartelaren eskabidea	gizarte eta toki garapena
7 - saltzaile ibiltarientzako baimena	hirigintza eta obrak
8 - jarduera baimenak	hirigintza eta obrak
10 - obrak eta aldamiaioa jartzeko baimena	hirigintza eta obrak
25 - hondamen espedientea	hirigintza eta obrak
31 - plan partziala	hirigintza eta obrak
32 - fidantza itzulketa	hirigintza eta obrak
12 - finka bat ixteko baimena	hirigintza eta obrak
142 - langileen hautaketa prozesua: lan-poltsa eratzea	idazkaritza
220 - kalte ordainen erreklamazioa	idazkaritza
221 - langileen hautaketa prozesua: lanbide-toki administrazioa	idazkaritza
223 - urteko lan eskaintza publikoaren espedientea	idazkaritza
152 - pertsonala: nominak	idazkaritza
160 - arauzko oporren eskabidea	idazkaritza
162 - behin behineko lanpostua bete	idazkaritza
178 - ogasun batzordeko bilerak zuzendu eta aktak egin (osoko	kontuhartzailletza
184 - fakturen ordainketaren tramitazioa	kontuhartzailletza
191 - jarduera baja ematea	kontuhartzailletza
208 - salaketak tramitatu	udaltzaingoa
209 - istripuen parte ematea	udaltzaingoa
211 - eguneko jardunen parte	udaltzaingoa

**Oharra: Zenbakiak, lan-jardunek aplikazio informatikoan dauzkaten zenbakiak dira.**

## 3. 2016. urterako lan jardunak

lan jarduna	saila
18 - jabetza derrigorrez kentzea	hirigintza eta obrak
20 - zuzeneko izendapen bidezko kontratua: beharrak	hirigintza eta obrak
21 - enkante bidezko kontratuak: beharrak	hirigintza eta obrak
22 - lehiaketa bidezko kontratuak: beharrak	hirigintza eta obrak
23 - zigor espedienteak: hirigintza edota ingurugiro arauak haustea	hirigintza eta obrak
45 - urbanizazio proiekturako baimena	hirigintza eta obrak
46 - hirigintza ziurtagiria eskatu	hirigintza eta obrak
47 - birpartzelatzeak	hirigintza eta obrak
52 - obra baimena: argizko errotuluak jartzea	hirigintza eta obrak
214 - kalea erabiltzeagatiko espedienteak (aldamioak, mahaiak...)	hirigintza eta obrak
133 - osoko bilkurak zuzentzea eta aktak egitea	idazkaritza
145 - udalhitza: langile funtzionarioen akordioa	idazkaritza
156 - dieta orria (kilometrajea-, otordu- eta ostatu ordainketak	idazkaritza
158 - soldatarik gabeko baimena (eszedentzia)	idazkaritza
166 - derrigorrezko erretiroa	idazkaritza
170 - hiruterako zerbitzu aitortpena	idazkaritza
182 - udalaren kontu orokorra egitea	kontuhartzailletza
183 - urte amaierako aurrekontu-kitapena	kontuhartzailletza
192 - zabor-bilketa eta tasaren kitapenaren likidazioa	kontuhartzailletza
203 - urteko aurrekontua	udaltzaingoa
204 - urteko memoria	udaltzaingoa

**Oharra: Zenbakiak, lan-jardunek aplikazio informatikoan dauzkaten zenbakiak dira.**

#### **4. 2017 urterako lan-jardunak**

<b>lan jarduna</b>	<b>saila</b>
41 - hildakoak lurperatzeko baimena	erregistro-estatistika
139 - udal errolda mantentzea	erregistro-estatistika
231 - erroldan okerreko izena ematea	erregistro-estatistika
2 - hirigintza batzordearen bilerak eta aktak egitea	hirigintza eta obrak
14 - udal ondasunak saldu	hirigintza eta obrak
15 - udal ondasunak laga	hirigintza eta obrak
53 - herri zerbitzuak berritu edota zabaldu	hirigintza eta obrak
132 - tokiko gobernu batzarreko bilerak zuzentzea eta aktak egitea	idazkaritza
150 - hauteskunde sindikalak	idazkaritza
151 - langileek soldata aurrerapena eskatzea	idazkaritza
167 - lanpostura atxikitu (praktikaldiko funtzionario izendatzea)	idazkaritza
172 - baja: ezintasun absolutua	idazkaritza
181 - aurrekontuen aldaketak	kontuhartzailletza
194 - gain-balio zergaren kitapena egitea	kontuhartzailletza
195 - obra baimena kobratzea	kontuhartzailletza
197 - errekurtsoei erantzun/txosten teknikoa	kontuhartzailletza
235 - prozedura negoziatuaren bidezko kontratua	udaltzaingoa
213 - kultur jarduera eta kirol probetako azpiegitura prestatu	udaltzaingoa
215 - garbiketa eta kaleetako konponketa	udaltzaingoa
217 - autoak erretiratzeko espedientea	udaltzaingoa

#### **Oharrak:**

- **Zenbakiak, lan-jardunek aplikazio informatikoan dauzkaten zenbakiak dira**
- **Lan-jardunon ardura duten sailak alda litezke, HAZ zerbitzua eskaintzeari begira hauek guztiakberrikusten eta berrantolatzen ari baikara.**

## **2.2.- ALORKAKO EGOERAREN ARABERAKO HELBURUAK ETA PROPOSAMENAK**

Alorkako azterketa diogunean edozein erakunderentzat estrategikoak diren egoera multzoak lantzea esan nahi da, hala nola: langileen hizkuntza-gaitasuna, barne-/kanpo-harremanak, hizkuntza-paisaia, baliabide informatikoak eta jarrerak/sentsibilizazioa.

Alorretan era honetako informazioa lantzen da:

1. Alorra: Langileen hizkuntza-gaitasuna: Hizkuntza-eskakizunak eta hizkuntza-trebakuntza.
2. Alorra: kanpo-harremanak. Udaletik kanpora doana jasotzen da hemen, herritarrei, beste administrazioei, hornitzaileei eta abarrei zuzendutakoak, hain zuzen ere.
3. Alorra: barne-harremanak. Udalaren barruko harremanak (atal barne/atal artekoak) jasotzen dira, hala nola: barne zirkularrak, ofizioak, txosten labur/luzeak, ahozko eta telefonozko harremanak e.a.
4. Alorra: Hizkuntza-paisaia. Erakundearen irudia jasotzen da bai kanpora bai barrura begirakoa: errotulazioa, katalogoak, iragarkiak, etiketajea, zigiluak, e.a.
5. Alorra: Baliabide informatikoak eta teknologia berriak. Euskaraz lan egin ahal izateko baliabide informatikoen egoera aztertzen da.
6. Alorra: Jarrera eta sentsibilizazioa. Langileek erabilera-planarekiko duten iritzia jasotzen da inkesta bidez.

### **2.2.1.-LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA**

Garatu diren azken lau planetan, indar handia egin dugu, langile guztiek zegokien hizkuntza-eskakizunak lortzeko, baita, maila hobetzeko ere. Emaitza onak ditugun arren, erabileran ez dugu hainbeste aurrera egin eta beraz, gaitasun teorikoak lortzeko lan hau baztertu eta ahozko zein idatzizko komunikazioan trebatzean egin nahi dugu indarra, orain.

Dena den, hizkuntza-eskakizunen egoera, hauxe da: 77 langilek dagokiena edo goragoko hizkuntza-eskakizuna dute, 12k beheragokoa. Dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez dutenak 15 langile dira, horietatik 7, erakunde autonomoetako langileak direlarik. Erdia dira, euskaraz moldatzen direnak.

### 2.2.1.1.- Udal-langileen hizkuntza-gaitasuna (ez dago salbuespenik)

Administrazio atala	Lanpost kopur.	Bete Gabe	Atalaren Derrigort.		EGIAZTATUTAKO HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK				
			kop.	%	4HE	3HE	2HE	1HE	GUZT.
IDAZKARITZA	7	0	6	85,71	2	2	1	1	6
ALKATETZA	1	0	1	100,00		1	0		1
KONTUHARTZAILETZA	6	0	6	100,00	2	2	1		5
BULEGO TEKNIKOA	5	0	5	100,00		2	2		4
KULTURA/HEZK.EUSKERA	10	1	4	40,00	4	5	0		9
HIRIGINTZA-OBRA-ZERBITZUAK	5	1	5	100,00		4	1		5
ERREGISTROA-ESTADISTIKA	3	0	3	100,00		1	2		3
OSASUN-ONGIZATE ZERBITZUA	3	0	2	66,66		1	1		2
UDALTZAINZA	23	0	23	100,00		3	17	1	21
OBRAK-LANGILE TALDEA	11	1	10	90,90		0	8	2	10
BESTE ZERBITZU BATZUK	5	0	1	20,00		1	1		2
KIROL ERAKUNDEA	12	1	10	83,33		3	6	2	11
KULTUR ETXEA FUNDAZIOA	28	1	20	71,42		19	4	4	27
LANBIDE HEZIK.FUNDAZIOA	8	0	4	50,00	1	1	6		8
EUSKALTEGIA FUNDAZIOA	6	0	1	16,66	6	0	0		6
<b>GUZTIRA:</b>	<b>133</b>	<b>5</b>	<b>101</b>	<b>74,97</b>	<b>15</b>	<b>45</b>	<b>50</b>	<b>10</b>	<b>120</b>

Kuadro honetan agertzen diren datuak benetan ziurtatu diren HE mailei dagozkie; kasu batzuetan langileek eman behar duten baino goragoko eta beheragoko hizkuntza eskakizuna islatzen da, gordinen, hau da, kontuan hartu barik zein HE eman behar duten legez.

**Kontuan hartu behar da, 2013ko Plantila Organiko berrian estruktural bihurtu diren 23 lanpostu laboral indefinituk ez dutela oraindik dagokien hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data ezarrita, Plantila Organiko horren arabera onartu beharreko Lanpostu Zerrenda ebatzi barik dagoelako. Beraz, 23 lanpostu horiei dagokiena ezarriz gero, Gernika-Lumoko Udalak bete beharreko derrigortasun indizea (%76,81) soberan beteko luke (derrigortasuna luketen lanpostuak 101+23 lirateke, 124 guztira, 133 lanpostutik %93,23).**

#### **Dagokien hizkuntza-eskakizuna lortzeko edo dutena hobetzeko proposamena<sup>2</sup>**

Edozein langileri, bere hizkuntza-gaitasuna hobetu nahi badu, Gernikako euskaltegiek eskaintzen dituzten ikastaroetako matrikula ordainduko zaio. Ikastaro hauek lan-orduetatik kanpora burutuko dituzte.(ikus dirulaguntzen barne araudia).

#### **Trebakuntzarako proposamenak**

Urtez urte, lehentasun legez kokatu ditugun lan-jardunetan protagonista diren langileei trebatze saioak eskainiko zaizkie, lan-orduetan. Lan-jarduna euskaraz burutzeko beharreko diren tresnak (mintzamina, txostenen idazkuntza, ortografia, lexikoa, eredu en erabilera...) landuko dira.

<sup>2</sup> Ikus langileak euskaraz prestatzeko diru laguntzen araudia

## 2.2.2.-KANPO HARREMANAK

### Egoera

Udalak udalaz kanpokoeekin dituen harremanak dira kanpo-harremanak, bai ahozkoak bai idatzizkoak. Udalaren kanpo-harremanik ohikoenak honako hauekin izaten dira: herritarrak, erakunde publikoak, zerbitzu-enpresak eta hornitzaileak.

Kanpora begirako harremanen azterketa egin denean, hurrengo taulako egoera aurkitu dugu.

ADMINISTRAZIO ATALA	SORTZE HIZKUNTZA										AGIRIA AMAITUTA									
	EUSKARAREN AHOZKO ERABILERA					EUSKARAREN IDATZIZKO ERABILERA					EUSKARAREN AHOZKO ERABILERA					EUSKARAREN IDATZIZKO ERABILERA				
	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Indizea	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Indizea	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Indizea	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Indizea
IDAZKARITZA	1	0	0	1	100,00%	8	8	22	38	42,11%	1	0	0	1	100,00%	7	20	11	38	71,05%
ERREGISTROA-ESTATISTIKA	0	0	0	0	0,00%	11	6	5	22	77,27%	0	0	0	0	0,00%	3	17	2	22	90,91%
KONTUHARTZAILETZA	0	0	0	0	0,00%	3	9	19	31	38,71%	0	0	0	0	0,00%	3	13	15	31	51,61%
GIZARTE ETA TOKI GARAPE	0	0	0	0	0,00%	12	7	12	31	61,29%	0	0	0	0	0,00%	7	15	9	31	70,97%
KULTURA/HEZK.EUSKERA	1	0	0	1	100,00%	39	5	4	48	91,67%	1	0	0	1	100,00%	33	11	4	48	91,67%
HIRIGINZA-OBRAK-ETXEBI	0	0	2	2	0,00%	16	16	153	185	17,30%	0	0	2	2	0,00%	13	96	76	185	58,92%
OBRAK-LANGLE TALDEA	0	0	0			0	0	0			0	0	0		0	0	0			
UDALTZAINGOA	0	0	0	0	0,00%	0	8	8	16	50,00%	0	0	0	0	0,00%	0	8	8	16	50,00%
UDALA GUZTIRA	2	0	2	4	50,00%	89	59	223	371	39,89%	2	0	2	4	50,00%	66	180	125	371	66,31%

### Oharrak:

Taulan agertzen den informazioa era honetan aztertu dugu:

**Lagina:** Atal honetan kanpo-harremanetako egoera desberdinetan jasotako lagin-kopurua agertzen da bi modutan. Batean laginaren sortze prozesua azaltzen da, hau da, agiri bat nola sortzen den adierazten duena. Bigarrean, laginaren azken prozesua azaltzen da, itzulpena egin ostekoan, hain zuzen ere.

**%:** Indizea ehunekotan agertzen da, eta euskarazkoak eta elebietakoak hartu izan dira kontuan.

**Eusk., Ele bie., Gazt.:** Nahiz eta indizeak euskarazko + ele bietako kasuak kontuan hartu, hemen agertzen da hizkuntza bakoitzean jasotakoaren oinarritzko egoera.

**Begi bistakoa** dugu sorreratik (euskaraz+elebietan: %39,89) prozesuaren azken faserako ibilbidean (euskaraz+elebietan: %66,31) aldaketa nabarmena dagoela emaitzan. Dena den, eleberaz sortzen dela diogunean, berez, gazteleraz sortzen da eta euskarara itzuli gero:

- Euskara hutsean sortzen dena: %15,90.
- Euskaratik gaztelerara itzultzen den portzentajeak gorantz egin du: %3,65



## Ahozko komunikazioa

### Erakundearen kanpoko hizkuntza-eskaera

	2012
Herritarrak direnean harremanetan jartzen direnak, egiten duten hizkuntza:	
Euskara %	54,00
Gaztelania %	46,00
Beste administrazio bat denean harremanetan jartzen dena, erabiltzen duen hizkuntza:	
Euskara %	66,66
Gaztelania %	33,34
Beste departamentu bat denean harremanetan jartzen dena, erabiltzen duen hizkuntza:	
Euskara %	70,63
Gaztelania %	29,37

### Erakundearen ahozko kanpo-harremanak

	2012
Telefonoan harrera euskaraz egiten da: %	89,28
Telefonoan elkarrizketa euskaraz gauzatzen da: %	64,28
Leihatilan harrera euskaraz egiten da: %	88,57
Leihatilan elkarrizketa euskaraz gauzatzen da: %	61,42
Jendaurreko ekitaldietako euskararen erabilera: %	83,33
Erantzungailuan erabiltzen den hizkuntza:	
Euskara %	0,00

	2012
Gaztelania %	0,00
Ele biak %	100,00

**Ahozko komunikazioetan** euskararen erabilera aztertzeko, ondoko egoerak neurtu dira:

a/.-Telefonoa jasotzean erabiltzen den lehen hitza.

b/.-Udalera hurreratzen diren herritarrei harrera zein hizkuntzatan egin zaien.

Herritarrak administrazioarekin ahoz harremanetan jartzen direnean, euskara gehiago erabiltzen da (%54) kalean erabiltzen dena baino (%49); ostera, udalak ahozko harremanetan beste administrazio batekin diharduenean, erabilera altuagoa da (%66,66) herritarrekin baino.

## Helburuak: bost urtera begira

Kanpora begira, helburu nagusia, harreman-hizkuntza, ahoz zein idatziz, bietan egiteko gaitasuna izatea da, beti ere kontuan izanda herritarrak hizkuntza aukeratzeko eskubidea daukala. Bost urtera begira, euskarazko ahozko harremanak egonkortu eta kualitatiboki aberastea izango da.

### 2.2.3.-BARNE HARREMANAK

#### Egoera

Barne-harremanak langileek eurak kokatuta dauden administrazio-atalaren baitan zein beste atal batzuekin dituzten harremanak dira. Barne-harremanetan sartzen dira atal barneko dokumentuak eta atalen artekoak, arduradun politikoekin egiten diren batzarrak eta, orokorrean, udalaren ohiko funtzionamendurako harremanak.

Kanpo-harremanetan egin den bezala barne-harremanetan ere ahozkoak eta idatzizkoak desberdinu dira.

#### Idatzizko barne harremanen erabilera-indizea

ADMINISTRAZIO ATALA	SORTZE HIZKUNTZA										AGIRIA AMAITUTA									
	EUSKARAREN AHOZKO ERABILERA					EUSKARAREN IDATZIZKO ERABILERA					EUSKARAREN AHOZKO ERABILERA					EUSKARAREN IDATZIZKO ERABILERA				
	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Indizea	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Indizea	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Indizea	Eusk.	Eleb.	Gazt.	Lagina	Indizea
IDAZKARITZA	0	0	0	0	0,00%	27	9	30	66	54,55%	0	0	0	0	0,00%	22	35	9	66	86,36%
ERREGISTROA-ESTATISTIKA	0	0	0	0	0,00%	9	3	1	13	92,31%	0	0	0	0	0,00%	6	7	0	13	100,00%
KONTUHARITZAILITZA	0	0	0	0	0,00%	14	17	22	53	58,49%	0	0	0	0	0,00%	14	23	16	53	69,81%
GIZARTE ETA TOKI GARAPE	0	0	0	0	0,00%	18	2	2	22	90,91%	0	0	0	0	0,00%	14	6	2	22	90,91%
KULTURA/HEZK.EUSKERA	0	0	0	0	0,00%	48	0	3	51	94,12%	0	0	0	0	0,00%	48	0	3	51	94,12%
HIRIGINTZA-OBRAK-ETXEBI	0	0	0	0	0,00%	24	10	108	142	23,94%	0	0	0	0	0,00%	23	71	48	142	66,20%
OBRAK-LANGLE TALDEA	0	0	0	0	0,00%	0	0	0	0	0,00%	0	0	0	0	0,00%	0	0	0	0	0,00%
UDALTAINGOA	0	0	0	0	0,00%	5	1	3	9	66,67%	0	0	0	0	0,00%	5	1	3	9	66,67%
UDALA GUZTIRA	0	0	0	0	0,00%	145	42	169	356	52,53%	0	0	0	0	0,00%	132	143	81	356	77,25%

Taulan azaltzen den informazioa hau xe da:

**Lagina:** Atal honetan barne-harremanetako egoera desberdinetan jasotako lagin-kopurua agertzen da bi modutan. Batean laginaren sortze prozesua azaltzen da, hau da, agiri bat nola sortzen den adierazten duena: euskaraz edota gaztelaniaz. Bigarrean, laginaren azken prozesua azaltzen da, itzulpena egin ostekoan, hain zuzen ere. Betiere itzulpena egitekotan, jakina.

**Idatzizko euskarazko dokumentuen** zutabearen barne-zirkularretako hizkuntza, nomina-orrietakoa, bilera-deiak, inprimakiak, txosten laburrak, txosten luzeak, memoriak, proiektuak, dokumentu kontableak, aurrekontuak eta kontratu-mota ezberdinen laginketa egin da.

**Lagina:** Atal honetan barne harremanetako egoera desberdinetan jasotako lagin-kopurua agertzen da.

%: Indizea ehunekotan agertzen da, eta euskara (%40,73) eta elebietako (%11,79) barne-harremanak hartu izan dira kontuan.

## Erakundearen ahozko barne harremanen indizea

	2012 urtea
Telefonoan harrera euskaraz egiten da: %	93,57
Telefonoan elkarrizketa euskaraz gauzatzen da: %	81,42
Erakunde barruko lan-bileretako euskararen erabilera: %	78,57
Barruko harreman informaletako euskararen erabilera: %	74,37

**Ahozko euskarazko barne harremanak** izeneko zutabean, telefonoa jasotzean erabiltzen den hizkuntza eta lan-bileretako hizkuntza aztertu dira lagin bidez.

**Argi dago administrazio barruko ahozko hizkuntza erabilera** euskaraduna dela, datuei kasu eginda. Bilakaera goranzkoa izan da azken urteotan. Politikarien ahozko erabilerak ere goranzko joera izan du, batik bat, batzordeetan egiten dena eta baita Osoko Bilkuran ere.

### Helburuak: bost urtera.

Atalen arteko harremanetan, helburua lan egiteko erabiltzen den hizkuntza, ahoz zein idatziz, euskara izatea da. Hori abiapuntutzat hartuta, euskararen barne-erabilera era mailakatuan sustatzea aurreikusten da. Eta kontuan hartuta erreferentzia-puntu nagusia irizpideak eta Idazkariak izenpeturiko barne-zirkularra direla, euskararen barne erabilerak goranzko ibilbidea hartuko duela aurreikusten da.

Bost urtera begira ahozko barne-harremanetan euskararen erabilera bermatzea izango da helburua. Eta ditugun erresistentzia guneak desaktibatzea, pedagogia mota berezia erabilita eta ez derrigortuta euskara erabiltzen.

### **2.2.4. ALDERDI POLITIKOEI BEGIRAKO LANKETA :**

- Plan Estrategikoa eta Administrazioiko Erabilera Planaren informazioa zabalduko zaie. Helburua, jakitun egotea eta programetan proposamenak txertatz
- Hauteskundeetan hautatutako kargu politikoei Legegintzaldiaren hasieran AEParen azalpena emango zaie, eta Planarekiko konpromisua eta horren bermea eskatuko zaie. Helburua, euren lanerako izango dituzten tresnak ezagutzea)


## 2.2.5. HERRITARREN ERAGINA EUSKARA PLANEAN

Zalantzaririk gabe, herritarrek eragin nahitaezkoa dute Erabilera Planean. Eta kontuan hartzeko eragilea da, Erabilera Planaren garapenean. Administrazio barruko euskararen erabilera, neurri batean, baldintzatuta agertzen da herritarrek-eta egiten duten hizkuntza hautuarekin. Derrigorrezkotzat jotzen dugu, beraz, kanpo harremanetarako alorrean kontuan hartzea herritarrekiko eta erakundeekiko harremana, nola idatzia, hala ahozkoa, eragina izaten baitute, gero, katebegien hizkuntza garapenean. Eurak dira zerbitzu publikoaren jasotzaileak... Eurak dira gehienetan administrazioaren jardunean harreman sarea egituratzen dutenak: nolako hizkuntza hautua, halako erantzuna. Elkarreragina dagoela argi eta garbi dago, hortaz.

Honako hauek dira jasotako datuak, herritarren eta erakundeen hizkuntza hautuari dagozkionak:

### Herritarren gaitasuna (erabilera udalarekiko)


#### Euskaldungoa



Iturria: Eustat (2006)

Euskaldunak + ia euskaldunak = %85,25

### Ahozko erabilera udalarekiko




Iturria: Euskara Zerbitzua

2012ko datu bilketan islatu zaigu datu hori: udalarekiko ahozko harremanetan herritarren %54k erabiltzen du euskara. Klean herritarren erabilera, ostera, zerbait baxuagoa da: %49 (2011ko kale neurketa / Soziolinguistika Klusterra).

### Idatzizko erabilera udalarekiko

- Herritarrek udalari **idatziz** euskeraz
- Herritarrek udalari **idatziz** gazteleraz
- Herritarrek udalari **idatziz** elebietara



*Iturria: Euskara Zerbitzua*

Herritarrek eta beste erakundeek udalari aurkeztutako idatzietatik, %18 dago euskaraz eta %17 eleberaz.

Beraz, Euskara Planean hainbesterainoko garrantzia duen eragilea aztertu, eta euskaraz egiten bultzatu beharrean gaude, benetako elkarreragina izango duelakoan.

### Helburua

Helburua ez da besterik udalean euskararen erabilera sustatzea eta bermatzea baino. Horretarako lagungarri ditugu herritarrek, guregana datozenean euskara komunikaziorako hizkuntza hautatzekotan. Ibilbide honetan ezin ditugu bazter utzi gainontzeko eragileak, publikoak zein pribatuak, hauek ere bidegile baititugu erabileraren garapenean.

Euskararen erabileran ahozkoa landuko genuke, baina, batik bat, idatzizkoa, kontuan izanda, gainera zer adierazten duten udaleko hizkuntza irizpideek. Hauek baitira gure eguneroko jarduna baldintzatzen duten bide-orriak.

## **“Zuk zergatik ez?” kanpaina**

2012an abian jarri zen “Gernika-Lumoko Udalak euskeraz eta,...zuk zergatik ez?” kanpaina, arestian aipatutako planteamenduari eta helburuari eutsiz. Hona hemen kronograma:

<b>2012 urtea</b>	<b>Zer</b>	<b>Nork</b>
Ekainean	Udal Erregistroko sarrera-datuak (euskarazko eskabide eta jakinarazpenen portzentajeak)	Euskara Zerbitzuaren hausnarketa
Irailaren 17tik urriaren 14ra	Kanpainako euskarriak moldatu eta zabalkunderako gutunak eta kartazalak prestatu	Euskara Zerbitzuaren ardura
Urriaren 17an	Kanpaina aurkezteko prentsurrekoa	Komunikabideei
Urriaren 18tik 31ra	Gutuna eta kanpainarako kartela	Hitzarmenkode diren enpresa eta saltokiei, erakunde publikoei, eragile nagusiei
Urriaren 18an	Bandoa atarietan eta bi orrikoa buzoneatu	Herritar guztiei
Otsailean zehar (2013)	Udal Erregistroko sarrera-datuak (Udaltoerako egin beharrekoa)	Euskara Zerbitzuaren eskutik
Ekainean (2013)	Kanpainaren baleko datu-bilketa egin	Euskara Zerbitzuaren eskutik
Uztailean (2013)	Kanpainaren balorazioa, indizeen hausnarketa eta 2013rako implementazioa zehaztu	Euskara Zerbitzuaren hausnarketa

Horri jarraiki, 2013ko ekainean burutu beharreko datu bilketaren araberrako hausnarketa egin eta kanpaina inplementatu egingo da hurrengo urteetan honakoak kontuan hartuz:

- Urteroko datu bilketa egin (Erregistroko sarrera eta irteerako agiriak).
- Kanpaina urtero errepikatu, hausnarketen araberrako egokipenak eginik.
- Ploterrak udal zentro guztietan zabaldu.
- Twiter eta face-book erabili kanpainaren eragina areagotzeko.
- Prentsurrekoak elkarrizketa bereziak burutu (Oiz-mendi, Hitza) datu bilketak aitzaki.

## 2.2.5.- HIZKUNTZA PAISAIA

Hizkuntza-paisaia, udalaren irudia osatzen duten elementuek, balio sinboliko nahiz informatiboa dutenek, gorpuzten dute. Barruko hizkuntza paisaian barruko informazio eta norabide-errotulazioa, bulegoetako dietario, egutegiak, e.a., tresneria eta fotokopiagailuetakoak, zigiluak, anagramak, jasotzen dira.

### Egoera

Egoeraren azterketa, leku fisikoen arabera egin da: udaletxe barruan eta udaltzainguan, hain zuzen ere.

Ondoriorik aipatzean, paisaiaren elebitasuna nabarmenduko genuke. Gehiena dago ele bietan. Barne hizkuntza paisaia baxuagoa diren ehunekoak bulegoetako errotulazioa eta tresneriaren errotulazioa dira.

Euskarazko eta ele bietako hizkuntza paisaia % 63,52koa da eta euskara hutsezkoa % 19,12koa.

		Euskaraz	Bietan	Gazteleraz	Lagina	Indizea	
<b>Barne errotulazio hizkuntza</b>		<b>GUZTIRA</b>	<b>16</b>	<b>66</b>	<b>42</b>	<b>124</b>	<b>66,13%</b>
	Informaziozkoak	10,0%	13	37	41	91	54,95%
	Norabidezkoak	10,0%	3	29	1	33	96,97%
	Beste batzuk	0,0%	0	0	0	0	0,00%
<b>Euskaraz</b>			<b>Bietan</b>	<b>Gazteleraz</b>	<b>Lagina</b>	<b>Indizea</b>	
<b>Bulegoetako errotulazio hizkuntza</b>		<b>GUZTIRA</b>	<b>260</b>	<b>44</b>	<b>348</b>	<b>652</b>	<b>46,63%</b>
	Dietarioak / Egutegiak	5,0%	42	25	4	71	94,37%
	Horma-irudiak	5,0%	14	11	2	27	92,59%
	Fitxeroak / Karpetak / Etiketak	10,0%	204	8	337	549	38,62%
	Beste batzuk	0,0%	0	0	5	5	0,00%
<b>Euskaraz</b>			<b>Bietan</b>	<b>Gazteleraz</b>	<b>Lagina</b>	<b>Indizea</b>	
<b>Tresneria errotulazio hizkuntza</b>		<b>GUZTIRA</b>	<b>1</b>	<b>5</b>	<b>27</b>	<b>33</b>	<b>18,18%</b>
	Fotokopiagailuak / Inpresorak / Faxak	10,0%	0	0	16	16	0,00%
	Aplikazio informatikoak	25,0%	1	5	8	14	42,86%
	Beste batzuk	0,0%	0	0	3	3	0,00%
<b>Euskaraz</b>			<b>Bietan</b>	<b>Gazteleraz</b>	<b>Lagina</b>	<b>Indizea</b>	
<b>Zigilu / orrietako hizkuntza</b>		<b>GUZTIRA</b>	<b>45</b>	<b>43</b>	<b>2</b>	<b>90</b>	<b>97,78%</b>
	Zigiluak	5,0%	41	13	1	55	98,18%
	Fax orria	5,0%	0	9	0	9	100,00%
	Gutun orria	5,0%	0	9	0	9	100,00%
	Gutunazalak	5,0%	0	9	0	9	100,00%
	Ordu extra agiria	2,5%	4	0	1	5	80,00%
	Dieta agiria	2,5%	0	3	0	3	100,00%
	Beste batzuk	0,0%	0	0	0	0	0,00%
<b>EUSKARAZKO ETA ELEBIETAKO HIZKUNTZA PAISAJEA</b>			<b>322</b>	<b>158</b>	<b>419</b>	<b>899</b>	<b>63,52%</b>
<b>EUSKARAZKO HIZKUNTZA PAISAJEA</b>			<b>322</b>	<b>158</b>	<b>419</b>	<b>899</b>	<b>19,12%</b>

## **Helburua**

Helburua Udalaren irudian, oro har, euskararen presentzia bermatzea da; batez ere, begi bistakoak izanik, eragin nabarmena duten elementuei garrantzi handiagoa emanez: bulegoetako errotulu nagusiak, etiketak, barruko informazioa, zigiluak, fax-orriak, udal-erakuntzen izenak eta abar.

Barruko informazioa eta errotulazioari dagokionagatik esan behar, erabaki proposamena eginda dagoela eta dagokion saila arduratuko dela, beharrezko diren aldaketak egiteko, euskara hutsezkoari lehentasuna emanez.

Gainontzekoei dagokienez, arreta berezia eskainiko zaie bulegoetako fitxategi, artxibadore eta, orokorrean, eguneroko lanarekin lotutako elementuei, esaterako, zigilu, fax-orri e.a. baita Udalaren kanpoko irudiari lotutako zenbait elementuri ere. Helburua euskararen presentzia egoera guztietan agertzea eta ikustea da.



## 2.2.6.- BALIABIDE INFORMATIKOAK

### Egoera

Garrantzi handiko alorra dugu, udaletako funtzionamenduan gero eta informatika-baliabide gehiago darabilgulako, eta erabiliko ditugulako datozen urteotan. Horrela bada, informatikaren eta teknologia berrien munduan ere, arian-arian, hizkuntza-normalkuntzari ekitea komeni da.

Udalaren baliabide informatikoen egoera deskribatzeko honako taula prestatu dugu:

ADMINISTRAZIO- ATALA	PROGRAMA INFORMATIKOA	PROGRAMAREN IZAERA	HIZKUNTZA	ERABILIA
<b>Denetan</b>	Office 2003	Programa ofimatikoak	Gaztelania	Gaztelania
	Windows XP/Vista/7	Sistema eragilea	Gaztelania	Gaztelania
	Diru-laguntzak	Diru-laguntzen kudeaketa	Euskaraz	Euskaraz
	Dekretuak	Dekretuen kudeaketa	Euskaraz	Euskaraz
	Erregistroa (Biscaytik)	Erregistroaren kudeaketa	Bietara	Bietara
	Acrobat Professional	PDF-ak aldatzeko programa	Gaztelania	Gaztelania
<b>Idazkaritza</b>	File Maker	Artxiboen datu basea	Bietara	Bietara
<b>Langileria</b>	Sigep	Nominak	Bietara	Gaztelania
<b>Kultura eta Euskara</b>	AEP Aplikazioa	Erabilera plana	Euskaraz	Euskaraz
<b>Gizarte eta toki garapena</b>	Animales peligrosos	Animalia arriskutsuak	Gaztelania	Gaztelania
<b>Estatistika</b>	Padroia (biscaytik)	Padroiaren kudeaketa	Bietara	Bietara
	Cementerio	Kanposantuaren kudeaketa	Gaztelania	Gaztelania
<b>Kontuhartzaitza</b>	Sical	Kontabilidatea	Bietara	Gaztelania
	Sial Win	Erreziboak	Gaztelania	Gaztelania
	Cajacash	Transf BBK	Gaztelania	Gaztelania
	Recaudación	Errekaudazioa	Gaztelania	Gaztelania
	Fidantzak	Fidantzen kudeaketa	Euskaraz	Euskaraz
	Consultas IBI	OHZ zergak kontsultatzeko	Gaztelania	Gaztelania
<b>Hirigintza</b>	Registro de actividades	Aktibitate ekonomikoen kudeaketa	Gaztelania	Gaztelania
<b>Zerbitzuak</b>	Feriak eta azokak	Eriak eta azokak	Euskaraz	Euskaraz
<b>Bulego Teknikoa</b>	Autocad	Diseinua	Gaztelania	Gaztelania
	Plan General	Plangintza orokorraren kudeaketa	Gaztelania	Gaztelania

<b>Udaltzaingoa</b>	“Multas”	Isunen kudeaketa	Gaztelania	Gaztelania
	Gespol	Komisaria osoaren kudeaketa	Gaztelania	Gaztelania
	“Policía Municipal”	Isunen kontsulta	Gaztelania	Gaztelania

Hogeita bost (25) aplikazio informatikotatik, hamar (10) dira euskaraz erabiltzeko modukoak eta zortzi (8) erabiltzen dira.

Azkenaldian erabilgarri diren programa informatiko berriak, bata gaztelania hutsezkoak da (Gespol, Udaltzaingoa) eta elebietakoa bestea (Bizkaytik, Erregistroa eta Padroia)

Bestalde, udalaren web orria bi hizkuntzatan dago: euskaraz eta gaztelaniaz.

**Helburua, euskarazko baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea da, betiere euskarazko bertsioek, erdarazkoaren kalitatea ziurtatzen duten neurrian.**

Lehenengo eta behin, gaur egun euskarazko bertsioak eskuragarri dituzten langileek, horiei buruz egiten duten balorazioa zein den eta zenbateraino erabiltzen dituzten aztertuko da.

### **2.3.- JARDUERA-ESPARRU DESBERDINETARAKO HIZKUNTZA IRIZPIDEAK**

Hizkuntza-irizpideak ere plana garatu ahala joango dira jorratzen. Besteak beste, honako jarduera-esparruok hartuko dira kontuan:

- Hizkuntza-prestakuntza eta etengabeko prestakuntza
- Administrazio-kontratuak
- Diru-laguntzak
- Administrazioaren irudia eta argitalpenak

#### **2.3.1.-Hizkuntza-prestakuntza eta etengabeko prestakuntza**

- Hizkuntza-prestakuntza

Hizkuntza-prestakuntzari lotuta administrazio honek jarraitu beharreko politikak, plan honek atal desberdinetarako jarritako helburuak hartu behar ditu kontuan. Irizpide argiak eta bateratuak beharko dira.

- Langileen etengabeko prestakuntza

- Ikastaroak euskaraz egiteko eskaintza ugarituz joango da.
- Prestakuntza-ekintzen eskaintzen artetik, jendaurrekoek izango dute lehentasuna.
- Prestakuntza-eskaintza guztietan espreski aipatuko da ikastaroan erabiliko den hizkuntza.
- Euskara eskaintzaren ezaugarriek gaztelaniakoek bezain erakargarriak izan beharko dute.

### **2.3.2.-Administrazio-kontratuak**

Baldintza hauen arabera,

- α) Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du prestazioa kontratistak.
- β) Herritarrentzako inprimakiak, oharra eta jakinarazpenak euskaraz zein gaztelaniaz, bietan, eman beharko ditu kontratistak.
- γ) Baldintza horiek ez badira betetzen edo, pleguetan zehaztutakoaren arabera, prestazioa emateko hizkuntza-gaitasuna duten nahikoa langile jartzen ez bada, espedientea irekiko da kalte-ordainak eskatzeko, edo, prestazioaren ezaugarriak kontuan izanda bete gabeko baldintza funtsezkoa bada, kontratua bertan behera uzteko.

Gernika-Lumoko Udalaren kontratazioen azterketaren arabera, kontratu-mota hauek azaltzen dira:

- Udal ondasunen mantentze-kontratuak
- Aholkularitza teknikoa emateko kontratuak
- Herritarrei zerbitzua emateko kontratuak
- Udal-instalazioen esplotazioak
- Hornidurak
- Obra kontratuetan
- Herri-lanen emakidetan

Atal honi dagokionean, Gernika-Lumoko Udalak jarraibidetzat hartuko ditu Erabilera Plan honen IV. Eranskinean azaltzen diren hizkuntza irizpideak (Eusko Jaurlaritzak 2006an kontratazio-pleguetarako ebatzitako hizkuntza irizpideak).

### **2.3.3.-Diru laguntzak**

Diru laguntza eta laguntzen esleipenari buruzko arauetan, esleipena egiteko eta, hala badagokie, zenbatekoa finkatzeko irizpideen artean hizkuntzen erabilera kontuan izan behar da.

Horretarako, Gernika-Lumoko Udaltzat 2012ko azaroaren 28an onartu zuen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra eta, hizkuntza irizpideei dagokienean, hauexek dira indarrean daudenak:

- 2. art. e).- *Esparru guztietan, diruz lagunduko diren jarduerak eta onuradunek antolatuko dituzten ekitaldi eta ekintzak nori zuzenduak izango diren aintzat harturik eta jasotzaileen hizkuntza eskubideak bermatze aldera, hizkuntza irizpideak finkatu beharko dira dagozkien deialdietan. Irizpide horiek zehazteko txostena eskatuko zaio Euskara Zerbitzuari.*

- 10. art.- 2).- *Gernika-Lumoko Udalak indarrean daukan Euskararen Erabilpenerako udal ordenantzaren 24. artikulua ezarria bete beharko da, hau da, diru laguntzaren onuradunak esparru publikoan ekingo dion neurrian, publikitate*

*euskarrietan eta ekintzaren garapenean euskara erabili beharko du, ahoz zein idatziz, eta lagundutako jardunerako udal instalaziorik erabili beharreko orduan ere baldintza hori bete beharko du. Horrez gain, diru laguntza deialdietarako esparru bakoitzeko araudi berezian ezarriko diren gainerako hizkuntza irizpideak ere bete beharko dira, 2. artikuluan ezarriari jarraiki.*

*- 55. art.- Honako jarrerak arau-hauste larritzat joko dira: (...)c) Lagundutako jardunean bete beharreko hizkuntza irizpideak ez betetzea, 2. artikuluan eta 10. artikuluan ezarriari jarraiki.*

Hori guztia, Euskara Sailak Ordenantzaren eraketa prozesuan ekarpenak egiteko egin zuen txostenetik jaso zen (VI. Eranskina).

### **2.3.4.-Administrazioaren irudia eta argitalpenak**

2.3.4.1 Gernika-Lumoko Udaleko irudian eta argitalpenetan euskarak izan behar duen presentziari dagokionez, irizpide orokorrak aztertu eta ezarriko dira, batetik, eta irudi edo argitalpen-mota bakoitzaren arabekoak, bestetik. Horrela nortasun korporatiboa, irudi grafikoak, argitalpen arinak (informazio-orriak, diptikoak, liburuxkak, katalogoak) eta iragarkiak (taulak, komunikabideak) bereziki landuko dira, bai euskararen presentzia bermatzearen aldetik, bai euskararen egokitasun eta aberastasunaren aldetik ere, euskara argi eta ulergarriaren eredu landuz.

### **2.3.5.-Ekitaldi publikoak**

Udalaren edo bere erakunde autonomoetako kargu eta enplegatu elebidunek euren euskararen erabilera bermatuko dute ekitaldietan, erakundearen duten kargu edo lanpostuagatik badihardute.

Era berean, Udalak ahal den guztietan halako ekitaldiak bideratzeko izendatuko dituenak hizkuntza-gaitasun egokia dutenak izan daitezzen zainduko du.

## 3.- NORMALIZAZIO EKINTZAK ETA AZPIEGITURA

### 3.1.-NORMALIZAZIO EKINTZAK ETA BALIABIDEAK

Orain arte Euskara Planaren edukiak aztertu ditugu lan-jardun, alor eta hizkuntza-irizpideei dagokienez, eta proposamenak ere, era horretan egin dira. Planaren hirugarren zati honetan biltzen dira egindako proposamen guztiak, eta bildutako normalizazio-ekintza guztiak alorka sailkatu ditugu. Alor bakoitzeko normalizazio-ekintza hauek kuantifikatu eta kostuak esleitzea izan da hurrengo pausoa. Ezinbestekoa da kostuen dimentsionamendu hau egitea, ahalik eta zehatzen egitea gainera, urteko programak era egokian martxan jarri eta baloratzearren.

Ondoren azaltzen dira helburuak lortzeko gauzatuko diren normalizazio-ekintza guztiak. Gernika-Lumoko Udalaren kasuan 10 eremu izango dira langai:

- 1-Hizkuntza-gaitasuna: trebakuntza
- 2-Hizkuntza-aholkularitza.
- 3-Itzulpen-politika
- 4- Hizkuntza irizpideak
- 5-Kanpo- eta barne-harremanak.
- 6.-Koordinazioa EBPNrekiko
- 7-Hizkuntza-paisaia
- 8.-Baliabide informatikoak
- 9.-Komunikazio plana
- 10.-Jarraipena eta ebaluazioa

### 3.2.-AZPIEGITURA

Eremua	Ekintza eta baliabideak	Arduraduna eta Orduak URTEKO	kostua
1.Trebakuntza	Lan-jardun bakoitzeko trebakuntza: 87 lan-jardun (15 ordu bakoitza)	350 Trebatzailea	
	Trebatze lanetan, puntualki, trebatzaileak errefortzua beharko balu, koordinazioaren ardura izan	15 ordu Trebatzailea	
2.Hizkuntza-aholkularitza	Langileei aholkularitza zuzena eskaini	80 trebatzailea	
	Prestakuntza:Matrikulazio-azterketen deialdien berri eman	4 HNT	
	Biskaytik aplikazioa (Alkarbidetako lan-mahaia) tramitazioak on-line	30 HNT	
3.Itzulpen-politika	Itzulpenak : lan-jardunek eragiten dituzten ereduak itzulpenak + hirigintza	280 Trebatzaile-itzultzaileak	
	Itzulpenak (eguneroko lan-jarduna Udala eta menpeko erakundeena)	Bere lanaldi osoa Itzultzailea	
4.Hizkuntza irizpideak	Jagon beharrekoak izango dira lan-jardunetan, buletinetan... barne eta kanpo harremanetan, kontratazioak kasu. Jorratuko den kontratazio bakoitzerako pleguetan, halaberrez, islatuko dira, eta beste baldintza guztien besteko pisua izango dute eskakizunetan (isunak barne)  Hala ez bada betetzen, HNTak bere eskumenekoak diren bide administratiboei helduko die.	Teknikariak Politikariak idazkaria	
5. kanpo eta barne harremanak	Zuzenketak lantzea	100 trebatzailea	
	KH eta BH dokumentuak egokitzea	100 trebatzailea	
6. Koordinazioa EBPNez	Euskara Batzordean berri eman (aurretiko hausnarketa)	30 HNT	
	“Zuk zergatik ez?” kanpaina	40 HNT	
	Diru-laguntzetarako deialdiak eta esleipena kontrolatu	40 HNT	

7. Hizkuntza-paisaia	Errotuluen, zigiluen eta beste elementu batzuen (menbreteak, fax-orriak, espedienteen karpetak...) jarraipena egin.	35 trebatzailea	
8. Baliabide informatikoak	Gure baliabide informatikoak egun merkatuan dauden euskarazko ereduekin erkatu eta egokitu.	Informatika teknikariak	
	Urtean behin, gutxienez, jarraipena egin	Talde eragilea 3 ordu	
9. Komunikazio plana	Erakunde autonomoetan AEP orokorra komunikatu eta koordinazio gunearen gidaritza (4 bilera 2014an)  Prestatu eta burutu	HNT  20ordu	
	Beste udal sailetan AEP orokorraren komunikazioa.  Prestatu eta burutu.	HNT 20 ordu	
	Urtez urte trebakuntzarako ebatzitako lan-jardunetan inplikaturik izango diren langileei dagozkien azalpen orokorrak eman. Bilera batean, guztiei.  Prestatu eta burutu.	Trebatzailea  4 ordu	
10. Jarraipena eta ebaluazioa	Urteko balorazioa (Urteko 110)	100 trebatzailea	
	Sei hilabeteko balorazioa eta Langileen autoebaluazio gidatua	20 trebatzailea	
	Talde eragilearen dinamizazioa (4 batzar urteko)	30 HNT	
	Urteko planaren egokitzapena	30 HNT	
	Urte birik behingo datu bilketa (urteko 200 ordu)	100 trebatzailea	

Plan honekiko arduradun bakoitzaren funtzioak eta eginbeharrak jaso nahi dira atal honetan. Orain arte osatutako baliabideak kudeatu eta planaren dinamika ziurtatzeko hurrengo azpiegitura eta funtzioak proposatzen dira:

### 3.2.1.- Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (HNT)

- ✓ Urteko Planaren egokitzapena.
- ✓ Derrigortasun-daten kudeaketa eta betetze-maila, lanpostuei dagokienean (HPS-  
rekiko harremanak eta HE inguruko tramiteak –berriak, aldaketak-)
- ✓ Talde Eragilearen eta Jarraipen batzordearen kudeaketa eta batzorde honetarako  
txostenak prestatzea eta aurkezpenak egitea, bere betebeharrei dagokienean.
- ✓ Euskara Plana EBPNrekin uztartzeko koordinazioa (Euskara Batzordearekin zubi  
lana).
- ✓ Irati aplikazioan datu bilketa txertatzeko egokipenak.
- ✓ Diru laguntzen Ordenantzak agindutakoa betetzen den kontrolatzea (arlokako  
deialdien kontrola eta txostenak egitea,...).
- ✓ AlkARBideko D ereduko lan-mahaian Euskara Planarekiko sortzen diren gaien  
inguruko ardura (Biskaytik aplikazioa, ereduak...).
- ✓ Euskara Planetik herritarrei begirako atala gauzatu (“zuk zergatik ez?” kanpaina).
- ✓ Hizkuntza irizpideak beteko diren bermearen azken jabea izan. Hala ez denean,  
hori zuzentzeko bere eskumenekoak diren bide administratiboei ekin.
- ✓ AEPren Komunikazio planaren ardura izan.
- ✓ Erakunde autonomoetan, AEP orokorrari egoki ditezen abiatu beharreko  
koordinazio gunearen ardura izan

### 3.2.2.-Trebatazailea-itzultzailea

- ✓ Hizkuntza-kudeaketa: hizkuntza-prestakuntza zein trebakuntza saioen koordinazioa  
eta jarraipena. Bakarkako trebakuntza.
- ✓ Urtez urte trebakuntzarako ebatzitako lan-jardunetan inplikaturata izango diren  
langileei dagozkien azalpen orokorrak eman.
- ✓ Hizkuntza aholkularitza langileei, lanpostuan.
- ✓ Planerako itzulpenak
- ✓ Planaren garapena bideratzeko itzulpenak (lanjardunak, agiriak, urratsak,...)
- ✓ Ereduen egokitzapena, zuzenketak.
- ✓ Hizkuntza-paisaiaren jarraipena egin, dagozkion zuzenketak proposatuz.
- ✓ Trebakuntza planaren inplementazioa.
- ✓ Inplementazioaren egunerokotasunaren gaineko balorazioa
- ✓ Urte birik behin HPSk eskatzen duen datu bilketa burutu.
- ✓ Lan-jardunen egoerari buruzko datu bilketak burutu Planaren balorazio orokorra  
egiteko. Planaren balorazio orokorra egin.
- ✓ Talde Eragilearen eta Jarraipen batzordearen kudeaketa eta batzorde honetarako  
txostenak prestatzea eta aurkezpenak egitea, bere betebeharrei dagokienean.
- ✓ AlkARBideko Trebagune foroan parte hartu eta ekarpenak egin.
- ✓ Trebakuntzarako, une jakin batean, errefortzu gisa, Udal euskaltegiko irakasleren  
bat baliatu beharko bagenu, koordinazioaren ardura izan.



### 3.2.3.- Itzultzailea

- ✓ Udal zerbitzuetako eguneroko jardun arrunteko itzulpenak (Hirigintzaz gaindiko beste zerbitzuak – Alkatetza, Idazkaritza, Kontuhartzailtza, Erregistroa,...). Euskara/gaztelania eta gaztelania/euskara.
- ✓ Asteroko Gobernu Batzarraren eta hileroko Osoko Bilkuraren aktak itzuli.
- ✓ Udalaren menpeko erakundeen itzulpen beharrei erantzun (eukara/gaztelania eta gaztelania/euskara).
- ✓ Idazkaritzako administrari laguntzailearen baja edo opor sasoieta ordezkapena egin, itzulpen lanetatik aparte bertako lan orokorra beteta.

### 3.2.4 Talde Eragilea

Partaideak: Udal Euskara batzordeko zinegotziak, idazkaria, Hizkuntza-Normalkuntzarako Teknikaria eta Trebatzailea.

Ahosdunak: Erabilera Planeko langileak edo udal sailtako arduradunak, gairen bat doakienean.

Betebeharrak:

- ✓ Planaren kudeaketaren ardura eta erantzukizuna, hizkuntza-normalkuntzarako teknikariarekin, hizkuntza trebatzailearekin eta Jarraipen Batzordearekin koordinatuz.
- ✓ Planetik sortutako egoerei erantzuna ematea edo eskaerak Jarraipen Batzordeari bideratzea, hala dagokionean.
- ✓ Planean proposatutako neurrien betetze-maila aztertzea eta lantzea.
- ✓ Planaren jarraipena eta jarraipen-txostenak baloratu eta egokitzapen-neurriak proposatzea.
- ✓ Euskara-plana martxan duten beste udalekin harremanak estutu eta finkatzea.
- ✓ Talde eragileko partaideek eta kasu bakoitzean bilduko lirakeen langileek, Administrazioaren Erabilera Planerako Euskara Batzordearen (AEPEB) papera beteko dute (proposamenak koordinatu sail guztietan, Plana aurrera eramateko baldintzak jorratzeko areataraz izlatu, Area bakoitzeko helburuen betetze-maila, Sailataraz unean uneko inplementazio ekintzak traslatatu).

### 3.2.5-Jarraipen Batzordea

Partaideak: Euskara zinegotzia, Udalak erabakitako beste koordinatzailea/k, Udaleko Hizkuntza Normalkuntzarako teknikaria, trebatzailea eta, hala dagokionean, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria,

Betebeharrak:

- ✓ Urte birik behingo jarraipena egitea, jarraipen txostena aztertu eta balorazioa egitea.
- ✓ Helburuen betetze-maila baloratzea eta egokitzapen-neurriak proposatzea.
- ✓ Gobernu Batzorde eta talde-eragileari helarazi beharreko iradokizunak lantzea eta koordinatzea.
- ✓ Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin koordinazioa bermatzea.

### 3.2.6.-Gobernu Batzordea

Betebeharrak:

- ✓ Talde eragileak egindako proposamenak eta iradokizunak baloratzea eta erabakiak hartzea.
- ✓ Plana aurrera eramateko baldintzak erabakitzea eta baliabideak esleitzea.
- ✓ Planaren urteko helburuen betetze-mailaren balorazioa egitea eta hizkuntza-irizpideak progresiboki martxan jartzeko erabakiak hartzea.
- ✓ Planaren garapen osatua bermatzea, udalari dagozkion helburuak lortze aldera.

### 3.3. KRONOGRAMA

Normalizazio ekintzak	2014 (..ETA URTERO: 2015, 2016, 2017)											
		Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
<b>Komunikazio plana</b>	Udal sailtako langileei PLAN OROKORRA			X								
	Trebakuntzan inplikaturakoei zeregin zehatza				X							X
<b>Hizkuntza aholkularitza</b>	<b>Prestakuntza:</b> matrikulazio-azterketen deialdien berri eman								X	X	X	X
	<b>zuzenketa</b>	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
<b>Itzulpen politika</b>		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
<b>Trebakuntza</b>		X	X	X	X	X	X			X	X	X
<b>Lan-jardunen lanketa/Barne- eta Kanpo- harremanak</b>			X			X			X			X
<b>Hizkuntza-irizpideak lantzea</b>		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
<b>ERAKUNDE AUTONOMOAK</b>	KOORDINAZIO GUNEA				X		X			X		X
	LAN-JARDUNEN FITXAK BETETZEA				X	X	X		X	X	X	
<b>Hizkuntza-Paisaia</b>	URTE BIRIK BEHIN					X					X	
<b>Baliabide informatikoak</b>	azterketa URTE BIRIK BEHIN						X	X				
	Jarraipena (T.Ean) urtero											
<b>Koordinazioa EBPNrekiko</b>		X				X				X	X	
<b>Datu bilketa berezia (HPS)</b>	URTE BIRIK BEHIN						X					
<b>Urteko balorazioa/Proposamenak</b>										X	X	X